

KANPALDIA, ELKARBIZITZAREN ISLA

Olatz Miranda



Suspertzaile, begirale, animatzaile... azken batean hezitzaile garen aldetik gogoeta txiki bat egiteko parada eman digu kanpaldiaren 25 urteurrenak. Atzera begirada bat botatzeko, ekintzez gainezka izan ohi dugun egutegian tartetxoa hartu eta orrialde honetan hitz gutxitan adierazi asmoz, urte hauetan zehar eginiko ibilbideak gudan izan duen eragina eta duen garrantzia nolakoa den hausnartu dugu. Izan ere, jarduerak bere horretan bistakoak diren emaitzak ematen dituzten bezala, epe luzera nabariak diren arrastoak ere uzten baitituzte gudan.

Urteetan bildu ditugun argazkiek kanpamenduan igarotakoak, ikusitakoak islatzen dituzte, 15 egunez bizitakoaren testigu dira. Irudiek ordea, sarritan hamaika hitzez adie-

raz daitekeena baino gehiago esaten badute ere, informazio mugatua ematen digute. 25 urte igaro direnean, ordu luzez egongo ginateke kanpaldiak eskaini izan digun elkarbizitza horretan bizi izandakoez hitz egiten eta hala ere, hauek ez lirateke nahikoak izango. Eta hitzez konta dezakegunarekin batera, gure eguneroko zeregina, gure eguneroko jarrera ere, badira urte hauetan guztietan elkarbanatu ditugun esperientziek irakatsi digutenaren isla.

Handia da beraz, ekintza honek gutako bakoitzarentzat eta taldearentzat oro har duen garrantzia, kanpaldiak gure ikasturteko lanean duen lehentasuna. Taldearen aldetik lan, ilusio, konpromiso, denbora... handia jasotzen duena urtero, taldearen beraren indarberritzea ekarri izan duena 25 urtez.

Etxetik urruti baina aldi berean etxeko giroan, Quintanarreko pinu artean eta izarrez jositako zerupean, egunero jardunean murgilduko gara aurtengoan ere 40 egunez talde giroan elkarri lagunduz, elkar errespetatuz elkarbizitzeko. Eta burutuko ditugun ekintzak, izango ditugun elkarrizketak, egingo ditugun ospakizunak, oroituko ditugun lagunak... elkarbizitza hori sustatzeari begira erabiliko ditugun bide, ekintza edota tresnak izango dira. Urteetan erabili izan ditugun baliabide ditugunak, 25 urtetako ibilbide honetan garatutakoak, gaur egun hezkuntza ez formal moduan ezagunak direnak.

Izan ere, hezkuntza formala eta ez formala elkarren osagarri diren aldetik, azken honen inguruko azterketa eta ikaskuntza handitu egin dira azken urte hauetan. Garapena ordea, urte askotakoa izan da, urteetan zehar horren inguruan lanean aritu izan diren taldeek sustatutakoa. Formalki gauzaturik ez zegoen hezkuntza honetan oinarritutako lana izan da gure kanpaldiak urtez urte izan duen lan ardatza. Urtero gaztetxoak hezitzeko helburuarekin aritu dira, suspertzaileekin batera, bertaratutako sukaldari, arduradun eta muntatzaileak, eta haiek ere heziketa honen ikaskuntzak jaso dituzte urtero.

Eta, urtero bezala, ekainaren 24an kanpamendurako bidea hartuko dugu, muntatzaileak lehenengo eta gaztetxo, suspertzaile, sukaldari eta arduradunak ondoren Burgoseko herri txiki hartan urte honetan ere bereziki berezia izango den udako ekintza hau burutzeko. Azken urteko partaideekin batera, urte hauetan guztietan lanean aritu diren haiek aukera izango dute bertara joateko. Horrela, hezitzaile diren aldetik atzera begirada botatzeko parada emango zaie kanpaldian zeregin batean ala bestean aritu izan direnei.

